



Biharko mugikortasunaren gakoak

Lurraldea, digitalizazioa, herritarrak

Ira. 14 2023

Kod. Z23-23

Mod.:

Online zuzenean Aurrez aurrekoa

Edizioa

2023

Jarduera mota

Uda Ikastaroa

Data

Ira. 14 2023

Kokalekua

Igartzako Jauregia

Hizkuntzak

Gaztelera Euskara

Balio akademikoa

10 ordu

Antolakuntza Batzordea



Azalpena

Bizitzak bide desberdinetatik eramaten zaitu: aldapan gora, behera, aurrera, atzera... Batzuetan lehun-lehun, errepidean joango bazina bezala eta bestetan aldiz, astindu ederrak eramanez. Bizitza mugimendua da. Eta barrenak mugitzen dizkizun horrek marrazten du zure patua. Hiriekin gertatzen den bezalaxe.

Espazio publikoak eta bide azpiegitura sareak gure herrien nerbio sistema dira eta mugikortasuna hauetan zehar doazen inputso elektrikoak, bizitza ematen diena. Baina mugikortasuna ez da pertsonak edo merkantziak desplazatzeko tresna soil bat, gure herritarrei hezkuntza, lan, kultura edo aisialdira iristea posible egiten dien sarea baizik. Horrela, ekonomiaren sostengu eta biztanleen ongizatearen bermatzaile bilakatzen da.

Behin pandemia pasata, Normaltasun Berrira iritsi garen honetan trafiko ilarak eta kutsadura mailak pandemia aurreko zenbakietara ari dira bueltatzen, ezer gutxi ikasi dugunaren seinale. Orain hiriek inoiz baina gehiago behar dituzte teknologia, negozio eredu eta kudeaketa sistema iraultzaileak, inor atzean utzi gabe biharko mugikortasun berrira jauzi egiteko.

Honek, mugikortasun adimentsu, elektriko, partekatu eta autonomoak duten potentziala erabiltzea esan nahi du, eskaripeko (mobility on demand) eta mugikortasuna zerbitzu bezala (mobility as a service) bezalako tresnen bitartez hiri plangintza berriak ezarriz klima aldaketari aurre egiteko. Baina teknologia ez da guztia, ezinbestekoa izango da herritarren sentsibilizazioa eta ohitura aldaketa bat ekuazioan sartzea benetako iraultza bat osatu nahi badugu.

Nola egin diezaiokeete aurre hiriek tamaina honetako erronka bati, jasaten ari garen energia eta klima krisi egoeran? Zein tresna dituzte landa-ingurune eta landa auzoek egoerari aurre egiteko? Zein paper jokatzten dute, lurralde antolakuntza, digitalizazio eta herritarrek prozesu honetan? Beasainen ospatuko den Uda Ikastaro hau foro paregabea izango da galdera hauei erantzuten saiatu eta etorkizuneko mugikortasunaren ikuspegia berdefinitzeko.

Helburuak

Gure hirietako espazio publikoaren ezinbesteko transformazioaz hausnartzea, krisi klimatiko eta mugikortasun modu jasangarriagoen baldintzetara egokitzeko.

Eskaripeko Mugikortasuna, Mugikortasun Partekatua edota Mugikortasuna Zerbitzu Bezala (MaaS) oinarritzat duten azken teknologien berri ematea.

Landaguneetako mugikortasunaren erronketaz eztabaidatu eta aplikagarriak diren teknologiak azaltzea.

Euskadin mugikortasun adimnetsu eta konektatua testatzeko martxan jarriko diren ekimen desberdinenak zabaltzea.

Antolakuntza



Beasaingo Udala

Programa

2023-09-14

08:30 - 09:00	Erregistroa / Registro
09:00 - 09:10	Inaugurazio instituzionala. Parte hartzeko ordena: Leire Artola Ugalde Beasain - Alkatea Itziar Alkorta Idiakez Uda Ikastaroak Fundazioa - Zuzendari Akademikoa
09:10 - 09:15	Jardueraren zuzendaritzaren aurkezpena Adur Ugartemendia Leunda Beasaingo Udala - Lurraldea Saileko Lehendakaria
09:15 - 09:45	“La ciudad de 15 minutos desde la perspectiva de la accesibilidad (ACC<15’)” María Teresa Baquero Larriva Universidad Politécnica de Madrid - Posdoctoral Researcher
09:45 - 10:15	“Movilidad y vertebración territorial” Ignacio Alcalde Marcos City Focus - CEO
10:15 - 10:45	“La Movilidad como Servicio - MaaS” Bruno Espinar Pérez Renfe - Head of Mobility 4.0 and Digital Innovation
10:45 - 11:00	Mahai ingurua: “Territorio y movilidad” Adur Ugartemendia Leunda Beasaingo Udala - Lurraldea Saileko Lehendakaria (Moderatzailea) María Teresa Baquero Larriva Universidad Politécnica de Madrid - Posdoctoral Researcher Ignacio Alcalde Marcos City Focus - CEO Bruno Espinar Pérez Renfe - Director de Movilidad 4.0 y Transformación Digital
11:00 - 11:45	Atsedena
11:45 - 12:15	“Bizkaia Connected Corridor como vehículo para el desarrollo de la innovación en las carreteras bizkaínas” Abel Capelastegui Lasso Tecnia - Head of Laboratory of Digital Services
12:15 - 12:45	“Infraestructura inteligente para la seguridad en entornos urbanos y rurales” Alfonso Brazalez Guerra CEIT - Head of Sustainable Transport & Mobility
12:45 - 13:15	“Euskadiren aukera Europako CCAMen Living Lab handiena izateko” Sara Ahetze Puignau basqueCCAM - Koordinatzaile teknikoa / Coordinadora técnica
13:15 - 13:30	Mahai ingurua: “Euskadi como laboratorio de testeo para la movilidad del futuro” Adur Ugartemendia Leunda Beasaingo Udala - Lurraldea Saileko Lehendakaria (Moderatzailea) Alfonso Brazalez Guerra CEIT - Head of Sustainable Transport & Mobility Abel Capelastegui Lasso Tecnia - Head of Laboratory of Digital Services Sara Ahetze Puignau basqueCCAM - Koordinatzaile teknikoa / Coordinadora técnica
13:30 - 13:45	Atsedena

13:45 - 13:50	Sintesia
13:50 - 14:00	Amaiera instituzionala Leire Artola Ugalde Beasaingo Udala - Alkatea Zigor Urkiaga Eusko Jaurlaritza - Proiektu Estrategikoen eta Industria Administrazioaren Zuzendaria
18:00 - 19:30	jarduera irekia / Actividad abierta: 15 minutuko hiria: herritarrak jomuga dituen hiri-plangintza eta mugikortasuna / La ciudad de 15 minutos: los ciudadan@s en el centro del planeamiento urbano y la movilidad

Zuzendaritza



Adur Ugartemendia Leunda

Beasaingo Udala

Adur Ugartemendia Leunda, Donostiako Arkitekturako Goi Eskola Teknikoan formatutako Arkitektoa da (2011) eta Zuzendaritza Komertzial eta Marketing-ean du Unibertsitate Masterra - UDIMA (2016). Halaber, Hirigintza Ekologikoan eta Hiri eta Toki Jasangarritasunaren Estrategian prestakuntza du Madrilgo Unibertsitate Autonomoan (2012). Hainbat urtez eraikuntza aurrefabrikatuko eta arkitekturako start-up 'etan nazioarteko komertzial gisa aritu ondoren, enpresa pribatuan egin zuen azken denboraldian, LANIK ingeniari-tza donostiarraren arduradun komertziala izan zen Ekialde Hurbilerako. 2020ko abendutik, Beasaingo Udaleko alkateorde eta Lurraldea Batzordeko Lehendakaria da. 2022an, "Smart Mobility: mugikortasun adimentsu eta jasangarri bateruntz" izeneko EHU-ko Uda Ikastaroaren zuzendari izan zen.

Irakasleak



Sara Ahetze Puignau

Bide, Ubide eta Portuetako ingeniaria, Hiri Garraio eta Zerbitzuetan eta Ingeniaritza Konputazionalen espezializatua. 10 urteko esperientzia du garraioen berrikuntzan eta mugikortasun adimendunean. Ingeniari gisa, hiri-mugikortasunari eta garraio-ereduei buruzko proiektuekin hasi zen lanean, trafikoaren simulazioarekin, mugikortasun-datu berrien azterketarekin eta eskari-ereduekin lotuta zeudenekin. Mugikortasun partekatuko zerbitzu berrietan eta horiek garraio publikoan integratzean zentratu zuen ikerketa. Geroago, garraio-sistemetan espezializatu zen, hala nola Ustiapenerako Laguntza Sistemak (SAE), Bidaiaari Informazioa Emateko Sistemetan (SIV) eta Ticketing-ean, eta bere datuen eragiketan eta ustiapenean. Duela gutxi, BasqueCCAM elkartearen koordinatzaile tekniko gisa sartu da. Elkarte horretan, I+G eta berrikuntzako ekosistema bat sortzeko lan egiten du, Mugikortasun Konektatu, Kooperatibo eta Autonomorako (CCAM) teknologiak eta irtenbideak sustatzeko.



Ignacio Alcalde Marcos

Hiru hamarkada baino gehiagoko esperientzia duen arkitekto urbanista da, hiri transormazio eta lurralde garapenean aditua. Espainiako "Nueva Agenda Urbana"-ren idazketan parte hartu du eta San Pablo CEU Unibertsitateko Hirigintza Masterreko zuzendari izan da. Nazio Batuen Hábitat edo Tecnalia bezalako erakundeekin lan egiteaz gain, aholkulari lanak egiten ditu beste erakunde eta enprekin hiri-estrategiak aurrera eramateko. Arduradun bezala aritu den lanketa desberdinek sari internazionalak jaso dituzte, besteak beste, Europako Hirigintza Saria, Smart City Expo 2015eko proiektu berritzaileenaren saria edo Hirigintza Elkargo Internazionalak saritutako hirigintza proiektu hoberena, 2017an.



Leire Artola Ugalde

Beasaingo Udala

Leire Artola Ugalde, Zuzenbidean lizentziatua da eta Ekonomian du espezializazioa, Deustuko Unibertsitatea (1999). Komertzial gestore bezala esperientzia zabala du, 15 urtez Nafarroako Rural

Kutxan aritu zen ardura hauekin. 2011 eta 2015 bitartean bere jardun profesionala politikarekin uztartzen hasi zen, Beasaingo Udaleko zinegotzi bezala. 2015etik politikari profesionala da, lehen urteak alkateorde eta Lurraldea saileko lehendakari bezala egin zituelarik, 2020ko abenduan Beasaingo lehen alkate andere izendatua izan zen. Aldi berean, Gipuzkoako Batzar Nagusietako batzarkide ere bada.



María Teresa Baquero Larriva

Cuencako Unibertsitateko (Ekuador) arkitektoa eta Hiri-berroneratze eta Jasangarritasunean doktorea da Madrilgo Unibertsitate Politeknikoan. Gaur egun, ABIO ikerketa-taldeko kide da, UPCko Hirigintza eta Lurralde Antolamenduko Sailaren barruan, "Accessibility Planning for the 15-Minute City (ACC < 15') proiektua garatzen ari delarik. Hurbiltasun hiri ereduen inklusibotasunean eta ekitatean aztertzean zentratzen da bere lana, bai eta biztanleria-talde guztien beharrak integratzeko moduan ere, adinekoak eta desgaitasuna duten pertsonak barne, hauen beharrak politika eta plangintzen barruan txertatuak izan daitezen. 14 argitalpen baino gehiago ditu, horien artean azpimarratzekoa da " $\pm$ 15-Minute City: Human-centred planning in action Mobility for more liveable urban spaces", EIT Urban Mobility erakundearentzat garatutako ikerketa-proiektua, Technical University of Munichen egindako egonaldiaren eskutik.



Alfonso Brazalez Guerra

Ceit

Nafarroako Unibertsitatean Fisikan doktorea. 25 urte baino gehiagoko ikerketa-esperientzia du garraio sistema adimentsuetan. Gaur egun, mugikortasun kooperatibo konektatu eta autonomoarekin lotutako ikerketetara bideratua.



Abel Capelastegui Lasso

Tecnalia

Gipuzkoako Ingeniaritza Eskolako arkitekto teknikoa da eta UPC-ko Proiektu Aurreratuak Kudeatzeko Graduondokoa du, baita EADA-ko Eraldaketa Digitaleko Graduondokoa ere. Gaur egun, Eraikitako Ondarearen eta Eraikinen Birgaitze, Zaharberritze eta Kudeaketa Integraleko masterrean formatzen ari da doktoretza egin aurretik. 10 urteko esperientzia du eraikuntzarekin eta mugikortasunarekin lotutako ikertzaile-taldean lidergoan. Tecnaliako Zerbitzu Digitalen Laborategia eta Bizkaia Connected Corredor living lab zuzentzen ditu, Bizkaiko Foru Aldundiarekin lankidetzan.



Bruno Espinar Pérez

Madrilgo Unibertsitate Konplutentsean Politika eta Administrazio Zientzietan lizentziatua, Enpresa Kudeaketako masterra du EOIn eta Mugikortasun Adimentsuko graduondokoa Kataluniako Unibertsitate Politeknikoan. 20 urte baino gehiagoko esperientzia du teknologian eta negozio-aholkularitzan, sektore pribaturako eta administrazio publikorako nazio eta nazioarteko proiektuetan diziplina anitzeko talde teknikoak gidatzen, kudeatzen eta motibatzen. Gaur egun, Renfeko 4.0 Mugikortasun eta Berrikuntza Digitaleko zuzendaria da. Konpainia horretan garatu ditu azken 15 urteak profesional gisa, non besteak beste, Saudi Arabiarako Abiadura Handiko Proiektua gidatu duen. 2022an bere taldearekin batera DOCO aplikazioa aurkeztu zuen, Mobility as a Service (MaaS)-erako aplikazio digitala, garraiobide guztiak tresna bakar batean integratzea bilatzen duena, mugikortasun intermodal jasangarria sustatzeko.



Zigor Urkiaga

Zigor Urkiaga Eusko Jaurlaritzako Proiektu Estrategikoen eta Industria Administrazioaren zuzendaria da. Zuzenbidetzan lizentziatua, espezializazio juridiko-ekonomikoa du, 15 urte baina gehiagoko esperientziarekin banka internazionalen.

Matrikula prezioak

AURREZ AURRE	2023-05-31 ARTE	2023-09-14 ARTE
Gazte tarifa	25,00 EUR	33,00 EUR
Orokorra	-	47,00 EUR
Matrikula murriztua orokorra	-	40,00 EUR
Matrikula exentzioa	-	33,00 EUR
Euskaltegi edo autoikaskuntzarako zentro homologatatuko kide	-	40,00 EUR
Elkar	-	40,00 EUR

ONLINE ZUZENEAN	2023-05-31 ARTE	2023-09-14 ARTE
Gazte tarifa	25,00 EUR	33,00 EUR
Orokorra	-	47,00 EUR
Matrikula murriztua orokorra	-	40,00 EUR
Matrikula exentzioa	-	33,00 EUR
Euskaltegi edo autoikaskuntzarako zentro homologatatuko kide	-	40,00 EUR
Elkar	-	40,00 EUR

Kokalekua

Igartzako Jauregia

Igartzako Monumento Multzoa. Peategi z/g. 20200 Beasain

Gipuzkoa